

BERBALAPIKO




ZER DA?

Berba-lapiko proiektua hezkuntza esparruan euskararen erabileran eta konpetentzian sakontzeko proposamena da.

ZERGATIK BEBALAPIKO?

1. Eremu ez-euskaldunetako LHko ikasleen euskarazko ahozko hizkuntza bultzatzea.
2. Irakasleak formatzea ahozko konpetentziaren kalitatean eta erabileran.



NORK?

Lehen hezkuntzako 1 eta 2. zikloko ikasleek hartzen dute parte.

HELBURUAK:

- Gaitasun sortzailea bultzatzea, oinarriko hizkuntza formak ezagutuz erabilera errealean ekoizteko.
- Hizkuntzarekin gozatzea eta euskararekiko atxikimendua handitzea, kulturaz baliatuz hiztun aktiboak sortzeko.
- Ahozkoaren lanketa modu sistematikoan eta proiektu komunikatibo baten barruan jorratzea.
- Testu-genero ezberdinen araberako jarduerak eta materialak eskaintzea.



METODOLOGIA:

- Egunero 20 minutuko esku hartzea egiten da, leku eta ingurune goxo batean.
- Ahozko komunikazioa lantzen da tarte horretan, modu sistematikoan, testu genero desberdinak erabiliz.
- Egunez egun erronka linguistikoak gehitzen eta handitzen doaz. Ahoz gero eta sorkuntza konplexuagoak ekoizteko, estrategia desberdinak baliatzen dituzte metodologian bildutako ariketek: banaka ala binaka sortzea, paperean idatzitakotik abiatuta ala bat-batean...

